

## KANGCHUNTSE UNE LABURRA

Mikel Saez de Urabain

**B**l oinak ur beroko palangana batean, hauxe izan da nire lanaren prezioa. Izoztua daukat eskubiko behatz lodia, Kangchuntsen gertatu zait. Egun luzeak izan dira elur artean, lan gogorra izotz pitzatuan bidea egitea, malda

*astunetan soka fijoak jarriz sherpa ausartekin batera pausoz pauso goraka, hain beharrezkoak genituen janari, arropa eta materialea porteatuz, nekeari aurre eginez. Indarrean nengoen, inguruarekin bat, ez zegoen aitzakiarentzako lekurik (1).*



Orain oinarriko kanpamenduan nago, azken egun hauek noiz pasatuko diren zain. Zenbat aldiz eseriko nintzen harri honetan? Zenbat aldiz begiratuko nuen Kangchuntse bertatik? Beti pentsakor, gailurra buruarekin eginez. Baina orain unea daukat, irudia. Zein garbi ikusten dudana, han goian, laino artean dagoen lepoko plateauan, gure denda berde txikia, barruan hiru lagun

kafetxo bat prestatzen, ixilik, bakoitza bere buruarekin.


Keskati, dendaren kreamilera izoztua zabaltzen dugu: bertan dago berriro, gure begi aurrean elur zuria, haize hotz batek airera zabaltzen duelarik, Astunak dira lehen pausoak, giharreak erabat gogorturik ditugu, arnasa sakonki hartuz indarrean sartzen goaz. Kangchuntse azpiko plateautik goaz ipar-ekialdeko ertza hartzeko asmoz. Elurra sakona da, beraz gure martxa geldia eta astuna bihurtzen du. Pare bat orduetan edo, ertzean gaude. Marron dugu atzetik. Parapentea igotzea gogorra da benetan. Itxaron beharko dugu. Hemendik aurrera soka erabiliko dugu. Ekilibristak bezala goaz elur zorrotzetik. Gure azpian laino artean

Tibet misterioitsua, aurrean berriz, azken hilabete hauetan hainbeste izardi eragotzi dugun tontor zorrotza. Azken palatxoan bihotzaren dandabak nabariagoak dira. Ez dut uste nekea denik, poza baizik. Gailurrean burua agertu orduko mendebal haize gogor batek agurtzen nau. Gaur, irailak 24, ezagutu zaitut Kangchuntse.

Marron iritsi bezain laister haizea dastatzen hasten da, txorien modura maite bait du airea. Gailurrean gaude bera noiz aterako den zain. Kondizioak benetan txarrak dira, baina ezin etsi. Zenbat alditan egin dugun ametsetan une honekin! Ordu bat pasa da eta kondizioak hobetu beharrean txarrera doaz: Txanpik eta biok kezkatu, gortutza dardara batean dugularik, etsitzeko

(1) Ver Pyrenaica n.º 128 (1982) "Kangchuntse o cómo ir al Himalaya con tres pesetas" por C. Ochoa. El equipo compuesto por Apellániz, Barandiarán, Ochoa, Ollanguindia y Oiarzabal se retiró el 21 de abril de 1982 a 100 metros debajo del Makalu La, en su intento de ascender la arista S.





Hirugarren kanpamendua

Foto del autor

## ALGUNOS DATOS DE INTERES

### LAS VIAS DEL KANGCHUNTSE (MAKALU II) 7.678

#### Situación

27° 54' N, 87° 04' E.

#### Primer ascenso (1954)

Franco, Terray y dos sherpas.

#### Arista S (1954)

Primer intento en 1954 por la expedición neozelandesa de Hillary, que exploraba el Chamlang y el Baruntse. Aproximándose por el glaciar Chogo llegaron a unos 7.000 m., bajo el Makalu La. Ese mismo año la expedición francesa de Jean Franco de reconocimiento al Makalu siguió el mismo camino y alcanzaron el Makalu La el 15 de octubre, desde donde intentaron el Makalu por la arista N en los siguientes días. El mal tiempo les impidió progresar pero aprovechando un día claro, y partiendo del campo a 7.000 m., en tres horas alcanzaron el Makalu La, donde descansaron una hora y en otras tres horas alcanzaron la cima del Kangchuntse.

#### Arista NW (1976)

Ruta seguida por una expedición japonesa en la que Satoshi Nara y el sherpa Lakpu Norbu alcanzaron la cima. Había sido intentada por otra expedición japonesa en 1972.

#### Arista E (1979)

Los ocho miembros de la expedición internacional dirigida por Gerhard Lenser y ocho sherpas consiguieron esta vía entre el 9 y el 17 de octubre.

Referencia. Baume L. "Sivalaya" 1979.

## FITXA TEKNIKOA

### GOIERRI-KANGCHUNTSE

Talde ihazko udan ere izan zen Himalaian. Ez zen zailtasun handiko mendia, eta ondoren zituen erraldioen artean txiki ikusten zen benetan. Baina sua piztua dugu jadanik. Erregaia eman beharko diogu beraz.

#### Talde osotu genuen sei lagunok

KIOSKO, TXANPI, JON eta IMANOL lazkaotarrak, MARRON ataudarra eta MIKEL ordiziarra. Euskaditik abuztuak 4.ean ateratu ginen Nepaleruntz, 17.ean hasi genuen hurbilketa. Irailaren 1.rako oinarriko kanpamenduan ginen. 6.ean lehen kanpamendua instalatuta zegoen. 15.ean bigarrena, eta bertatik 20.ean jo genuen erasoaldi bat. Ezinezkoa gertatu zen. 23.ean hirugarren kanpamendua kokatzen dugu lepoan. 24.ean gailurra. 25.ean Marronek 7.400 metroetatik saltatzea lortzen du. 27.ean bigarren taldea berriro saiatzeko da. 28.ean, eguraldia dela eta, buelta eman beharko dute. Urriaren 5.ean itzultzeko hurbilketari ekiten diogu. 13.ean hegaxkinez Kathmandun gaude berriro. 20.ean etxean pozik.

eskatzen diogu. Dugunarekin konformatu behar, bihar kondizioak hobetu daitezke eta lepotik saltu egiteko aukera izan.

Lepoko maldak ba ditu 50°, eta azpian kristoren zuloa. Hirugarren kanpamenduan gaua pasa ondoren bertan gaude zain. Txanpi kanpaiaren alde bat eusten du, nik bestea, eta Marron besoak zabalik unearren zain. Nerbioak nabariak dira. Ez da txantxetarako gauza. Instant batean, tiroi indartsu batez kanpaia dantzan jartzen du eta maldan behera jaurtitzen da abiadura hartzeko. Haizearen indarrez gure gainean dago ehun bat metroan edo, gero aurrerantz doa Everest eta Lhotse artean galdu arte. Gu berriz hamar ordu eta gero oinarriko kanpamendura iristen gara. □

## RESUMEN

### GOIERRI-KANGCHUNTSE

**24** de setiembre - RAMON AGIRRE, MIKEL SAEZ DE URABAIN Y RAMON BAZTARRIKA, miembros de un grupo del Goierri de Gipuzkoa superan el Kangchuntse (7.678 m.) también conocido como Makalu II.

El C.B. había sido instalado el 1 de setiembre a 5.600 m. El CI se ubicó a 6.100 m. el día 6 y el CII a 6.800, el 15. Tras un intento fallido, instalarían el día 23 el CIII a 7.400 m. sobre el collado Makalu-La, desde el que accederían a la cumbre al día siguiente.

En el descenso, RAMON AGIRRE realizaría desde el Makalu-La un salto en parapente hasta los campos inferiores.

Además de los citados, integraron la expedición IÑAKI URTEAGA y los hermanos JON e IMANOL LASA.